



# Thomas S. Kuhn hil zaigu

Alfontso Mtz. Lizarduikoa\*



**O**rain dela zenbait hamarkada fisika teorikotik zientziaren filosofiara pasatu zen graduatu gazte hura hil egin zaigu. Min horrek, dena den, ezin izango ditu Harvard, Berkeley eta Princeton-go Unibertsitateetan irakatsi zituen gai ernagarriak ezkutatu. Are gutxiago bere estilo zuzenean zientziari eta naturari buruz idatzi zituen liburuak. Zientzia garaikideak naturari inposatutako ekintzak eta pentsatzeko erak ikasgai eta arduragai ditugun guztiok Kuhnekin zorretan gaude.

Kuhnen obrarik garrantzitsuenak, '*Iraultza zientifikoaren egitura*' izenekoa da (Elhuyarrek duela zenbait urte euskara txukunean itzuli zuena, hain zuzen). Obra horretan Kuhnek teoria zientifikoaren sorrera, eboluzioa, aldaketa eta heriotza deskribatzen ditu. Kuhn maisua heldu arte, zientziaren eboluzioa egitasunerantz zuzendutako etengabeko bidea zela uste genuen. Edozein teoria zientifikok kosmoseko egitasunaren zati bat betirako gordetzen zuen eta, ikuspuntu horretatik, zientzia lehen erlijioak betetzen zuen jokabidea hasi zen ordezkatzeko. Kuhnek, aditueta lehenengo aldiz, ikuskera absolutu hori egokia ez zela adierazi zigun.

Kuhnen iritziak, eguneroko praktika zientifikoa ('*ohizko zientzia*' deitu zion) *paradigma* baten barnean garatzen da. *Paradigma*, zientifikoek garai historiko batean munduari buruz duten oinarritzeko ikuskera orokorra da. Paradigma horiek ezin dira ukatu; hori eginez gero zientziatik kanpo geldituko ginateke (zientziaren ikuspegitik herexeko bihurtu, beraz). Dena den, denbora igaro ahala, *ohizko zientziaren* barnean eboluzioa ere izaten da eta, horren ondorioz, arazo berriak sortzen dira. *Ohizko zientziak* arazo horiek konpontzerik ez du eta, orduan, *paradigmaren* krisia sortzen da. Krisi hori

konpontzeko *iraultza* zientifikoa behar izaten da. Iraultza zientifikoarekin paradigma aldatu egingo da eta lehen metafisikotzat kontsideratzen ziren elementuak orain, zientzia ortodoxo berriaren (*ohizko zientzia* berriaren) barnean onartuko dira. Beraz, paradigma berria egiazat hartzen badugu, lehen zegoena gezurrezkoztat (nahiz eta urte askotan zehar erabilgarria izan den) hartu beharko da.

Paradigma bat ezartzeko (zaharra ukatuz) egoten den prozesua, erakunde zientifikoaren eta *borrokaren* bitartez burutzen da eta borroka horien azpian dautza 'arrazoi zientifikoek', askotan, ez dute logikaren egiturarekin harreman handirik izango. Kuhnen iritziak, teoriak inposatzeko sortzen diren borrokek, askotan, botere politikoa lortzeko egoten direnekin antz handiagoa izango dute razionalitatea lortzearekin baino.

Zientziaren inguruan dauden haustura (*iraultza*) horiek, zientzia jarraia (metakorra) ez dela iradokitzen digute eta, gogorra badirudi ere, zientzia ez da lehen kokaturik zegoen punturaino hurbilduko; ezta egitasun abstrakturaino ere. Zientzia, azken finean, existentzia razionalizatzeko sistema baino ez da izango, eta sistema hori soziologiatik hurbilago egongo da logikatik baino.

Gaur egun, gizartea krisi gorrian dagoen planeta honetan, eta zientzia krisi horren fronte eraginkorrean dagoelarik, zientziaren berrirakurketa kolektibo eta instituzional hau benetan suspengarria da, batez ere gizabanako, gizarte eta naturaren artean dauden harremanak razionalizatzeko logikarenak baino bide egokiagoak badaudela sinesten dugunontzat. Eskerrik asko, T. S. Kuhn, hau guztiagatik.



\* Injinerua eta Filosofoa